

# BESTELAKO XEDAPENAK

LAN ETA ENPLEGU SAILA

2371

*EBAZPENA, 2023ko maiatzaren 3koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Enplegurako Lanbide Heziketako zuzendariarena, zeinaren bidez argitara ematen baita Euskal Autonomia Erkidegoko landa- eta hiri-hiriguneetako emakumeei laguntzeko programa garatzeko 2022rako dirulaguntzen erakunde onuradunen zerrenda, Europar Batasunaren NextGenerationEU funtsak finantzatutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari lotuta.*

Dirulaguntza publikoak ematean nahitaezkoa den publikotasun-printzipioa betetze aldera, Euskal Autonomia Erkidegoko landa- eta hiri-hiriguneetako emakumeei laguntzeko programa garatzeko 2022rako dirulaguntzen (Europar Batasunaren NextGenerationEU funtsak finantzatutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari lotuta) 2022rako deialdiak 7.6 artikuluan ezartzen du Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Lanbide Heziketako zuzendariaren ebazpen bidez argitaratuko dela Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian deialdi horren babesean emandako laguntzen onuradun izan diren erakundeen zerrenda, jasotako zenbatekoak adierazita. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak erabaki bidez onartu zuen deialdi hori, 2021eko abenduaren 21ean egindako bilkuran.

Hori dela-eta, honako hau

## EBAZTEN DUT:

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea 2022rako honako dirulaguntza hauen erakunde onuradunak: Euskal Autonomia Erkidegoko landa- eta hiri-hiriguneetako emakumeei laguntzeko programa garatzeko dirulaguntzak (Europar Batasunaren NextGenerationEU funtsak finantzatutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari lotuta). Zerrendan, gainera, jasoko dira espediente-zenbakia, erakunde onuradunaren izena eta emandako laguntzaren zenbatekoa, ebazpen honen eranskinean jasotakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko maiatzaren 3a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Enplegurako Lanbide Heziketako zuzendaria,  
JUAN CARLOS IBARROLA SÁENZ DE UGARTE.

2023ko maiatzaren 19a, ostirala

## ERANSKINA

Erreferentzia	Interesduna	Dirulaguntza, eurotan
RU22010002	Cruz Roja Araba	121.825,00